

 	<b>INGURUMENAREN ARLOKO ARAUAK HORNITZAILE/AZPIKONTRATISTENTZAT</b>
---	---

LANTIKek badauka ISO 14001:2004 arauarekin bat datorren ingurumenaren arloko kudeaketa-sistema bat. Ondokoa da, funtsean, sistema horren xedea: ingurumenaren alorrean kalteak eragin ditzakeen Lantiken jardueri dagozkien elementuak identifikatzea eta ingurumen-eragin horiek deuseztatu edo gutxiagotzeko eginerak abiaraztea.

Enpresaren Kalitatearen Kudeaketa arloan abian jarri dugun Sistemaren Politika Integratuan ingurumenarekin dugun konpromisoa jasotzen da:

**“Lantiken Kalitatearen Kudeaketarako Sistema Integratuak (Garapenaren arloko negozio prozesuak, erosketak eta bezeroarenganako arreta eta Ingurumenaren arloko laguntza-prozesuak eta Informazioaren Segurtasunerako prozesuak) EFQM sistema du oinarri, beti ere ISO 9001:2008, ISO 14001:2004 eta ISO 27001:2005 ziurtagiriek bat etorriz; ondoko hau da haren azken xedea: Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiak eta Aholkularitza Zerbitzuak erabiltzea oinarri duten soluzioak bilatu eta hornitzeko behar diren lanak egitea. Teknologia eta zerbitzu horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren, Batzar Nagusien, Foru Aldundiaren Sektore Publikoaren eta Bizkaiko Toki Izakien jardunbidea eta garapena ahalbidetuko dute.**

#### **Ingurumen alorrarekiko konpromisoa**

**Halaber, hiru konpromiso hauek hartzen ditu LANTIKek bere gain: ingurumenaren arloan hoberantz jotzea, kutsadura beronen alderdi guztiak kontrolatuz prebenitzea eta aplikatu beharreko lege-beharkizun guztiak eta erakundeak sinatzen dituen beste batzuk betetzea. Politika hori Lantiken edo Lantiken izenean lanean ari diren pertsona guztiei jakinarazten zaie, eta erakundeak ingurumenaren arloan planteatzen dituen helburu guztiak ezarri eta hobetzeko erreferentziagune gisa baliatzen da.”**

LANTIKeko beharginek, beronen hornitzaileek eta hornitzaileen langileek konpromiso horren berri jakin behar dute, eta konpromiso hori aplikatu.

Hornitzaileek ingurumenaren alorreko legeriaren berri jakin behar dute, eta legeria hori bete, beren beregi aplikatu beharreko alorretan.

Ondokoa da Lantiken Kalitatearen Kudeaketarako Sistema Integratuaren ingurumen-kontrolerako abian jarririk daukagun sistema:

Ingurumenaren alorrean edo lan-osasunean eraginik izan dezakeen isurketa, jaurtiketa edo jario oro saihestuz bilduko dira hondakinak. Hondakin arriskutsuak identifikatzeko, aplika daitekeen legeriaren arabera gertutzen diren etiketak erabili beharko dira.

Ontziratzea hondakinaren ezaugarriei egokituko zaie, halako moldez non saihestu egingo baita eduki oro galtzea. Ontziak edukiak ez zaurtzeko edo edukiarekin konbinazio arriskutsurik ez eratzeko moduko materialez fabrikatu beharko dira.

Hondakinak biltegitzeko tokia behar bezala seinaleztaturik egongo da eta kutsadura beste ingurune batzuetara igarotzea ekiditeko behar diren bitarteko guztiak izanen ditu.

Kasu orotan, hondakin arriskutsuak biltegitzeko gehieneko denbora 6 hilabetekoa izango da, salbu eta Hondakin Arriskutsuen Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzuak beren beregi baimentzen duenean.

**Hondakin geldoak** kanpoko enpresei emango zaizkie, baloratu edo birzikla ditzaten; ahal den guztietan, hondakinok ezabatzea edo gordailatzea saihestuko da, edo bestela, udal bilketa zerbitzuaren bidez kudeatuko dira, baldin eta etxeko hondakinei berdinetz dakizkien kantitateak badira.

**Hondakin arriskutsuak** (osasun arlokoak ere barne), baimendurik dauden kudeatzaileei entregatuko zaizkie, ondorik adierazten den prozedurari jarraiki:

- *LANTIKen hondakin arriskutsu bakoitzaren ardura duen pertsonak kudeatzaileak hondakinok onartzeko eskabidea egingo dio kudeatzaile honi berari.*
- *Hondakinak kudeatzaileari entregatu aurretik, kudeatzaile horrek hondakinak onartu egiten dituela xedatu beharko da.*
- *Hondakinak entregatzeko eguna baino hamar egun lehenago, Hondakin Arriskutsuen Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzuari jakinaraziko zaio horiek lekuz aldatuko direla.*
- *Hondakin arriskutsuak ematen diren unean, hondakin arriskutsuen kontrol eta jarraipenerako agiria bete beharko da, betiere eredu ofizialean ezarririk dauden jarraibideekin bat etorritik.*
- *Hondakin arriskutsuak ematekotan, produktu mota hori garraioari dagokionez indarrean dagoen legerian eskatzen diren beharkizunak betetzen dituen garraiolari bati baino ez zaio emanen.*

Horrezaz gainera, Informatikako ekipamenduaren instalazio, desinstalazio eta mantentzearen ondorioz sor daitezkeen hondakin guztiak PMA-2 prozeduran (ingurumenarekin loturik dauden jardueren Eragiketa-Kontrola) ezarririk dagoenaren arabera kudeatu beharko dira.

Hornitzaileak ingurumenaren eretzean gerta daitezkeen gorabehera oro jakinarazi beharko du eta ingurumenaren alorreko proposamenak egin ahal izango ditu.

Eginera eta gomendio horiek bereziki errespetatu behar dituzte **LANTIKen instalazioetan zerbitzugintzan ari diren enpresa guztiak.**